



*Assa Ikastola
Batxilergo 1 - Ekonomia
2024-2025 ikasturtea
Autolan*

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Funtsezko elkarteek enpresa baten arrakasta lortzeko ezinbestekoak dira hornitzaileak, bazkideak, bezeroak eta finantzatzaileak. Hauek baliabideak eskuratzeko, berrikuntza sustatzeko, merkatuan kokatzeko eta arriskuak murrizteko aukera ematen dute.

Elkarte bakoitzak gure enpresa sustatzeko hainbat zeregin bete behar ditu: lehenengoa **Kolaboratzaile espezializatuak** izango dira, hauek bezeroak erakartzen laguntzen digute, eta salduko dugun produktua ahalik eta hoberen uzten lagunduko digute, horretarako aseguru-etxeak eta tailer mekanikoekin lan egingo dugu. Aseguru-etxeei dagokienez, haien funtzio nagusia da gure enpresari babesa eskaintzea, gu haiei diru kantitatea ematearen truke. Esaterako, gure bezeroak istripu bat izanez gero, hauek arduratuko dira autoak jasan dituen kaltearen konponketak eragiten dituzten gastuak. Arduratuko diren beste gauza bat da autoa lapurtzen badute, edo autoa zaharkituta geratzen bada beste kotxe bat ekartzeaz. Tailer mekanikoei dagokienez, hauek arduratuko dira kotxearen konponketaz eta hauek eragiten dituzten gastuetaz.

Jarraitzeko, ezinbestekoa den beste elkarte **Finantza-bazkideak** izango dira, proiektuaren hasieratik kapitala edo finantzaketa emango digute gure kanpainia aurrera eramanez ahal izateko. Hauek udala eta Eusko Jaurlaritza izango dira. Hasteko, udalak diru laguntzak eskainiko dizkigu bezeroek auzo lanak egitearen trukez. Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin dirua lortuko duguproiektua hazi ahal izateko.

Bukatzeko, gure ustetan, elkarte garrantzitsuena edo lehentasun handiena eman beharko geniokeena **Kolaboratzaile espezializatuak** izango da, haien laguntzarik gabe proiektua aurrera eramatea ezinezkoa izango litzatekeelako, finantza-bazkideak aldiz, haien laguntzarik gabe beste aukera izango genituzke, hala nola beste bankuei laguntza eskatzea.